

AZPEITIA / Urrestillara luzatuko da hemendik aurrera Udal Liburutegi zerbitzua

8-18 urte bitartekoiei 15 eguneko maileguan lagako zaizkie liburuak. Autozerbitzu gisa funtzionatuko du eta bakoitzak apuntatu beharko du hartu duen alea

Udaleko Kultura eta Gazteria Sailek, "liburutegia herritarrei urreratzeko asmoz eta irakurzaletasuna bultzatzeko", ekimen berri bat jarri dute abian. Horrela, Azpeitiko Udal Liburutegian biltegian egon beharrean, Urrestillako gazteen lokalean ipiniko dituzte, bertako herritarrek goza ditzaten. Eskaintza 8 eta 18 bitartekoei zuzenduta dago baina gurasoek ere erabil ditzateke.

Adin guztietarako aproposak diren aleak izango dira bertan, euskaraz nahiz erderaz. Taula bat jarri dute eta ale bakoitzean zehaztuta dago, gometsen bidez, liburu bakoitza zein adinetarako egokia den jakiteko.

Pertsona bakoitzak 2 ale maileguan eramateko aukera izango du, 15 eguneko iraupenarekin. Urrestillako lokalaren erabilera Gazteria Sailaren eskumena da. Kudeaketa gurasoek eramaten dute. Arratsaldean egon ohi da zabalik lokala baina liburutegi zerbitzua egun osoz eskainiko da. Horretarako autozerbitzu gisa funtzionatuko du. Lokala txartel bidez irekitzen da. Beraz, interesatuek aurrez Gazteria Sailera (943157161) deitu eta txartela emango zaie.

Udalak sistema honetan ipinitako konfidantza maila altua da. "Inor ez da egongo lokala zaintzen eta bakoitzaren kontzientziak zerikusi handia izango du. Hala ere, txartelarekin badakigu nor sartzen den bertara eta alde horretatik kontrol piska bat badago. Egiten den erabileran ere ikusi ahal izango da zerbitzuak jarrai dezakeen ala ez. Esperientziak esango digu funtzionamendua nola eraman", azaldu zuen Kultura zinegotzi Ana Mendizabalek.

Liburua hartzerakoan, bakoitzak zein ale hartu duen eta datak apuntatzeko liburuxka bat izango dute bertan eta denbora gehiagorako behar izanez gero, bertan azaldu beharko da, aleen kontua eraman ahal izateko. Guztira 94 ale ipini dituzte. "Eskaera gehiago balego, osatzen joango ginateke", azaldu zuen Gazteria Saileko teknikari Aloña Larrañagak. Aurretik ere beste 100 ale bazeuden Urrestillan, hiztegiak, komikiak edo entziklopediak kontutan hartuta. Gaztetxoek eskolako lanak edo beste lanen bat egiteko ordenadoreak ere badituzte bertan.